



ASKE MAITE HAUT

- *Likits eta lizun aske maite haut.* Jendarte heterosexual eta heterosexuatzaile honetan, patriarkatuak gure desira markatzeko, norabidetzeko eta eraikitzeko egiten du apustu. Baina nik aske maite hauet horma zurrinetako txirrikitez baliatuz, gure praktika sexualak aztertu eta sexualitatea eredu berrietara jotzeko apustua egiten dugulako. Maskulinitatearen plazer hegemonikoaren aurrean, praktika sexual koitalak lehentasunezkoak ez eta horien kategorizazioari ihes eginez, maite haut aske.
- *Familiak eta elkarbizitzak berrasmatuz aske maite haut.* Guraso bakarrak, lesbianak, bi guraso baino gehiagoko haurrak, harreman poligamiakoak dituztenak, ama izatea erabakitzen dugun bikote lesbianak, lagun taldeak e.a. Patriarkatuaren oinarria den familia nuklearraren nagusitasuna eta gailentzen den harreman eredu ezbaian jartzen dugun desobedienteak gara eta horregatik, maite haut aske.
- *Bollera haizelako aske maite haut.* “Lesbiana naiz eta harro nago” diot lagun artean, baina baita ere, tabernan, herriko plazan, kalean edota ikastetxean. Lesbiana gisa jarduteak emakumeoi txikitatik ikastetxean, etxean, pulpitutik, telebistan irakatsi nahi izan dizkiguten guztiarekin haustea dakar: emakume onak; amak, gizonaren plazeraren iturri, zintzoa, finak, familia eredu tradizionalaren sustatzaileak, erromantikoak, ezkonduak. Ez ditugulako praktika lesbianak arauaren barnean sartu nahi, araua bera deslegitimatatu, askotariko praktikak errealitate direla ohartarazi eta ikusezin egin nahi gaituzten arren, hemen gaude. Emakume eta bollera gisa, maite haut aske.
- *Printzipe urdinik gabe aske maite haut.* Ez daukagu hutsune natural bat, zeinetan bestearekin, osatzen garen. Laranja oso gara. Eta baliabideak badituz neure burua bidean ez ahazteko, beraz, aske maite naiz.
- *Trans*, gay, maritxu, butch... aske maite haut.* Maite zaitut lumadun edo gabe, bizardun edo gabe, emakume-gizon dikotomiatik ihesi zabiltzana... Ugari eta askotarikoak dira gorputzak, baita identitateak ere. Identitateak dinamikoagoak izan daitezten, borrokan diharduzu, eta identitatea pertsonala ez ezik politikoa dela aldarrikatzen duzun horri: maite haut, aske.



+

- *Arraro bezain berezi aske maite haut.* Arraroa, berezia da... mespretxu jarrera batekin entzun izan ditudan hitzak dira. Arraro? Araitik ateratzeagatik, mandatu sexual jakina ez betetzeagatik, sexu bereko kideekin oheratzeagatik, trans* izateagatik, zakildun izan eta gona janzteagatik... Eta nik...arraro eta berezi haut gustuko, maite haut aske.
- *Desberdina haizelako aske maite haut.* Bakarrak, ordezkaezin eta errepikaezinak gara. Askotariko gorputzak gara: lodi, argal, estu, iletsu, zabal, altu, baxu, ximurdun, begi urdun, marroi... Denak maite ditut, aske!

Euskal Herriko Bilgune Feminista
Euskal Herrian, 2017ko ekainaren 14an